



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2024-11-20 **Bilera zenbakia:** 38

Bilera ordua eta lekua: 19:00 bilera gelan

Parte-hartzaileak: Monica eta Laura (GE), Iker, Nagore eta Aitor (zinegotziak), Rosario eta Mari (Bizi nahi), Leire eta Alaia (Arbelaitz), Nerea (udala)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordea.

Festetako balorazioa egin zen azken batzordean.

2. Foroaren garrantzia

Berriz azaldu da foroaren garrantzia zein den, aurreko foroko gaiak begiratu eta gaiak ekarri behar dira gunerik emankor bat izateko.

3. Ekintzen balorazio laburra

Urriko pintxo potea; oso ondo baloratu da.

Pertsonal kontxis; pintxo pote amaierako ekintza izan zen, ondo egon zen baina jendearen bila atera ziren antzezleak. Baloratu ea pintxo pote amaieran ekintza egin behar den edo ez.

Aste klima; konta ditzagun ipuinak tailerra- kontaketa; Nereak komentatu du, egin egiteagatik ez duela zentzurik. Aste Klimako datak ez dira egokiak izaten (festen ondoren) eta hortaz, baloratu behar da egin edo ez eta egiten bada zer.

Ixabel Agirresarobe nahiko zorrotz egon omen zen hurrekin.

Urkiko asteburua; Oso arrakastatsua izan da, jende berria animatu da nahiz eta eguraldi txarra egin.

Gau beltza; Oso ondo atera da, oso partehartzailea. Helduen birak agian susto gehiago edo egotea komentatu da.

Gaztain jana; Ekonomikoki ez da oso bideragarria izan, dena den, gustura azaldu dira.

Ipuin kontaketa; Taldea bildu da eta giro polita egon da. Betzaida Urtaza ez da ixabel Agirresarobe bezain zorrotza egon.

Asteazkeneko kale ekintzen inguruan aipatu da, askok ez dutela jakiten ekintza berezia dagoen eta baldin badago non den etab. Komunikazio hori hobetu behar dugu.

4. Hurrengo ekintzak herrian

Az. 22: Kantu afaria, Kuxkuturekin.

Az. 25: Emakumeen indarkeriaren aurkako eguna, 18:00etan elkarretaratzea.

Az. 30: Ion Martinez-en "Euskaldunon jatorria, historia eta irria" 17:30ean Kulturgunean. Ondoren, talo jana.

Ab 5: Podologoa

Ab 16: Ongizateko hitzaldia; Bizi-bixi aurkezpena.

Ab. 24: Olentzero eta Maridomingi

~~Ab. 26: Graffiti eta mural tailerra.~~

5. Elkartetatik datozenak.

Ez da ezer aipatu.

6. Udaletik datozenak.

- Eskola berri; Urbanizazioa udalak egin behar du eta oinarriak atera dira.
- Denda berria; Urte amaierarako bukatuta behar du.
- Medikua.; 2 eguneko zerbitzua emango omen du Itsasondon.
- Mintzalagun taldea; Baten bat prest azaldu da, ea nola kudeatzen dugun.
- ZEOS programa; Egingo den formazioren berri eman da.

7. Justifikazioak eta hitzarmenen berritzea.

Azaroaren 30erako urteko ekintzen justifikazioa egin behar da. Aurten, hitzarmenak berritzea tokatzen da.

8. Kulturartekotasunaren lanketa

UEMA- Eskola: Kulturartekotasuna eta hizkuntzaren inguruko lanketa. Telegram kanala irekiko da eta zabalkundea egingo da.

Ongizate- Antiarrazismoa eta emakume migranteak; saioen berri eman da.

9. Euskaraldia

4. edizio honetan, Euskaraldiak irauten duen egunez gain, iraunkorragoa den lanketa egin nahi da. Alzaga, Arama eta Itsasondok batera zerbait egin dezakegun aztertu nahi da.

10. Besteak:

- Belaunaldien arteko ekintzak- talo tailerra; eskolaren eskaeraz hitz egin da. Rosario prest azaldu da taldekatzeak txikiak badira.
- Udal egutegiko argazkien aukeraketa; 27 argazki aurkeztu dira, ea bozkak zer dioten.
- Itsasondo 2.0 58. zenbakiaren balorazioa; oraindik ez dute irakurri edo gainetik.
- Herri bizitza batzordea abenduan ez da izango.
- Pintxo potea hilero egiteko proposamena, baloratu da udaberrian berrartzea.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Ekintzen berri eman elkarteetan</i>	<i>Denok</i>	<i>Ekintzetarako</i>
<i>Mintzalagunik baden galdetu taldeetan</i>	<i>Denok</i>	<i>Ahal den azkarren</i>
<i>Justifikazioak egin</i>	<i>Denok</i>	<i>Azaroak 30</i>
<i>Euskaraldia nola landu dezakegun hitz egin taldetan</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorderako</i>
<i>Eskolari adierazi talo tailerra egiteko prestotasuna</i>	<i>Nagore</i>	<i>?</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Urtarrilak 15, 19:00etan bilera gelan		